

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 624/2018 Erabakia, azaroaren 19koa. Onespena ematea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura 2018-2019 deialdiko laguntzak ematea eta ukatzea onesten duen maiatzaren 29ko 260/2018 Erabakiari hainbat toki erakundek jarritako erreklamazioak ebazteari**

Maiatzaren 29ko 260/2018 Erabakiaren bidez, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura 2018-2019ko deialdiko laguntzak ematea eta ukatzea onetsi zen.

Hona hemen aipatutako ebazpenari erreklamazioa aurkeztu zioten toki erakundeak eta erreklamazio mota:

ERAKUNDEA	ESPEDIENTEA	IDAZKIAREN DATA
Miñaoko Administrazio Batzarra	2018/10214	8/06/2018
Otogoienko Administrazio Batzarra	2018/10190	27/06/2018
Otobarrengo Administrazio Batzarra	2018/10191	27/06/2018
Iruña Okako Udala	2018/10004	28/06/2018
Lantarónko Udala	2018/10185	29/06/2018
Zigoitiko Udala	2018/10146	4/07/2018

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saileko Laguntza Juridikoaren Ataleko langileek aurreko lerroaldean aipatutako erreklamazioei buruzko txosten juridiko bana egin zuten, eta aurkeztutako erreklamazioak baiesteko edo ezesteko proposamena jaso zuten haietan.

Era berean, beharrezkoa da esatea ezen, txosten horietan adierazten denez, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 115.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aurkeztutako errekurtsoen kalifikazioan huts egitea ez dela oztopo haiek izapidetzeko, baldin eta ondorioztatzen bada zein den haien benetako izaera; hortaz, 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzi jurisdikzioa arautzen duenak, 44.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, aurkeztutako idazkiak kontuan hartu eta ebatzi behar dira administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurreko erreklamazio gisa.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak txostenak egin ditu, non jasotzen baita diruz lagundu daitezkeen jardunetako diru laguntzen zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak datan agertzen den egunean egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Baiestea Lantarónko Udalak aurkeztutako erreklamazioa (Esp. 18/10185).

Bigarrena. Onestea jarraian zerrendatu diren Arabako toki erakundeei diru laguntzak ematea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019ko programaren kontura. Diru laguntza horiek 66.432,80 euro dira guztira, eta kontzeptu eta zenbateko hauen arabera emango dira:

ESPEDIENTEA	ERAKUNDEA	OBRA	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN AURREKONTUA	DIRU LAGUNTZA
18/10185	Lantarónko Udala	Estalkia eraikitzea padel eta tenis pistetan	94.904,00	66.432,80

Hirugarrena. Beheko zerrendan ageri diren zenbateko horiek esleitzea "10203.16.01.762.00.01 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2018-19" aurrekontu partidaren kontura 2018ko urterokoan (xedapen erref.: 105-5241/ 18.1.18) eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuaren 2019ko konpromiso kredituetan (xedapen erref.: 105-222/ 18.3.19):

ERAKUNDEA	DIRU LAGUNTZA	2018KO URTEKO KUOTA	2019KO URTEKO KUOTA
Lantaróngo Udala	66.432,80	9.592,70	56.840,10

Laugarrena. Ezestea Zigoitiko eta Iruña Okako Udalek eta Miñao, Otogoiengoa eta Otobarrengo administrazio batzarrek espediente hauei buruz jarritako erreklamazioak:

- a) (Esp.: 18/10146) Zigoitiko Udala.
- b) (Esp.: 18/10214) Miñao Administrazio Batzarra.
- c) (Esp.: 18/10190) Otogoiengo Administrazio Batzarra.
- d) (Esp.: 18/10191) Otobarrengo Administrazio Batzarra.
- e) (Esp.: 18/10004) Iruña Okako Udala.

Bosgarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea lagundutako obren finantzaketaz, gauzatzeaz, gehikuntza eta murrizketaz eta obren ondoriozko ordainsariez beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 19a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua*

**MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**